

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

565/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Koldo Mikel Ruilope González Funtzio Publikoko zuzendari izendatzea

Bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta Foru kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak 9 eta 11 artikuluetan xedatutakoarekin, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio foru aldundiko goi karguak eta behin-behineko langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere kasuan kasuko saileko diputatuak hala eskatuta.

Horregatik guztiagatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Koldo Mikel Ruilope González Funtzio Publikoko zuzendari izendatzea.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2025eko urriaren 9tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR